



Ireki da merkataritzari, ostalaritzari, autonomoei eta kultura-sormen sektoreari zuzendutako COVID19ari aurre egiteko laguntza ekonomikoak eskatzeko epea

- Gaurtik hasita, 20 egun naturaleko epea irekiko da eskaerak tramitatzeko, urtarrilaren 25era arte
- Laguntza-zerbitzu bat prestatu da KZgunean tramitazio telematikoa egin ahal izateko, edo tramitazio fisikoa egiteko Udaleko ATARIA zerbitzu bidez egin beharko da; bi kasuetan, aurretiko hitzorduarekin funtzionatuko da
- Pertsona autonomoen eta sormen- eta kultura-industrien kasuan, zuzeneko laguntzak 500 eurokoak izango dira, 750 eurokoak merkataritzarako eta 2500 eurokoak ostalaritzarako
- Diruz lagunduko dira egindako inbertsio eta ekipamenduen gastuak, bai eta COVID19ren aurrean materiala erostekoak ere, baita herriko elkarte gastronomikoen kasuan ere

Gaur zabalduko da COVID19k udalerrian eragindako ondorio sozioekonomikoak arintzeko laguntzak eskatzeko epea. Gaurtik aurrera, tokiko ekonomia suspertzeko COVID19 laguntzen bigarren fasea aktibatuko da, 453.000€-ko zenbatekoarekin. Udaberrian martxan ipinitako lehen fasean egin zen bezala, laguntza-lote berri hori **beste erakunde batzuek sustatutako laguntzen osagarria da**, eta, beraz, Eusko Jaurlaritzak edo Gipuzkoako Foru Aldundiak abian jarritako laguntzekin bateragarri da.

Berriz ere, hurrengo 6 hilabeteetan jarduerari eusteko konpromisoa hartuko du onuradun bakoitzak. Diru-laguntzen agindua atzo argitaratu zen Aldizkari Ofizialean, urtarrilaren 4an, eta **20 egun natural** egongo dira eskaerak tramitatzeko, urtarrilaren 25era arte.

Mari Jose Izagirrek, Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria zinegotziak, aitortu zuenez, "GAOn argitaratzea gustatuko litzaigukeena baino gehiago atzeratu da, baina Udalez haratago doazen tramiteak dira, eta Eguberri data hauetan argitaratu beharreko gaien itxaron-zerrenda garrantzitsua erregistratzen du aldizkari ofizialak".

Izagirre "konbentzituta" dago "diru-laguntzen bigarren txanda hau pizgarri garrantzitsua izango dela tokiko ekonomiarentzat". Aitortu duenez, "ezegonkortasun eta galderaz jositako agertoki baten aurrean gaude", eta Udalak "ez du ahaleginik eskatimatuko krisi honetatik ateratzeko, inor atzean gera ez dadin".

Eskabide telematikoak

Eskabideak, ahal dela, Andoaingo Udalaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztuko dira. Eskabidea elektronikoki aurkezteko baliabiderik edo gaitasunik ez badago, **tramitazio telematikorako laguntza-zerbitzu bat prestatu da KZgunean** (Ondarreta kalea 8, Bake Epaitegiaren ondoan).



Andoaingo Udala



Laguntza-eskaera orria egoitza elektronikotik deskargatu behar da, www.andoain.eus webgunearen hasierako orrian (Diru-laguntzak/Sustapen ekonomikorako eta enplegurako laguntzak atalean), eta tramitazioa egiteko bete. Dokumentu guztiak bete ondoren, KZguneak laguntza behar duten guztiei eskainiko die. Horretarako, beharrezkoa izango da aurrez hitzordua eskatzea 943 023 610 telefonora deituta.

Eskaera fisikoak

Eskaera modu presentzianean tramitatu nahi duten pertsona guztiek Udaletxean kokatzen den **ATARIA herritarren arreta-zerbitzuan** aurkeztu ahal izango da, hitzordua aurrez telefonoz eskatuta (943 300 830), eta ezarritako prebentzio-neurriak beteta, Covid-19ak eragindako osasun-krisia dela eta.

Laguntza berrien xehetasunak

Argitaratutako laguntza-agindua sektore jakin batzuei zuzenduta dago: **autonomoak, tokiko merkataritza eta ostalaritza**, eta berrikuntza gisa, **kultura- eta sormen-industrien sektorerako** ildo espezifikoko bat. Laguntza horietatik kanpo geratzen dira COVID19agatik osasun-alerta ezarri zenetik etenik gabe zerbitzua eman duten funtsezko jarduera gisa izendatuak.

Pertsona autonomoen eta sormen- eta kultura-industrien kasuan, zuzeneko laguntzak 500 eurokoak izango dira, 750 eurokoak merkataritzarako eta 2500 eurokoak ostalaritzarako.

Aurkeztu beharreko dokumentuei edo tramitazioari buruzko zalantzarik izanez gero, Urigainen kokatzen den Ekonomia Sustapen, Enplegu eta Gazteria Sailera dei daiteke, 943 304 221 telefonora.

OINARRIAK: https://labur.eus/boletina_COVID

Andoain, 2021eko urtarrilak 5



Abierto el plazo de solicitud de ayudas económicas anti-COVID19 dirigidas al comercio, hostelería, personas autónomas y sector cultural-creativo

- Desde hoy, se abre un plazo de 20 días naturales para la tramitación de las solicitudes, hasta el 25 de enero.
- Se ha preparado un servicio de asistencia para la tramitación telemática en el KZgunea, o una tramitación física en el servicio ATARIA del Ayuntamiento, en ambos casos se funcionará con cita previa
- Se trata de ayudas directas que ascenderán en el caso de las personas autónomas y las industrias creativas/culturales a 500€, hasta los 750€ para el comercio y 2500€ para la hostelería
- Se subvencionarán los gastos de inversiones y equipamientos realizados; así como la adquisición de material frente al COVID19, también en el caso de las sociedades gastronómicas

Hoy se abre el plazo para solicitar las ayudas para paliar los efectos socio-económicos causados por la COVID19 en el municipio. Desde hoy, se activa la segunda fase de ayudas anti-COVID19 dirigidas a reactivar la economía local, con un importe total de 453.000€. Tal y como se realizó en la primera fase desarrollada en primavera, este nuevo lote de **ayudas tiene un carácter complementario a las ayudas fomentadas por otras instituciones**, por lo tanto, se suman a las ayudas puestas en marcha por el Gobierno Vasco o la Diputación de Gipuzkoa.

Se establece como contrapartida el compromiso de cada beneficiario de mantener la actividad en los próximos 6 meses. La orden de ayudas se publicó en el Boletín Oficial ayer, 4 de enero, y **habrá 20 días naturales** para tramitar las solicitudes, hasta el 25 de enero.

Mari Jose Izagirre, concejala de Promoción económica, Empleo y Juventud, reconocía que “la publicación en el BOG se ha demorado más de lo que nos hubiera gustado, pero se trata de un trámite que excede del Ayuntamiento, y en estas fechas navideñas el boletín registra una importante lista de espera de asuntos a publicar”.

Izagirre se ha mostrado “convencida” de que “esta segunda tanda de ayudas económicas será un estímulo importante para la económica local”. Ha reconocido que “nos hallamos en un escenario plagado de interrogantes” en el que desde el consistorio “no se va a escatimar en esfuerzos para salir de esta crisis, precisamente para que nadie se quede atrás”.

Solicitudes telemáticas

Las solicitudes se presentarán preferentemente a través del **registro electrónico** del Ayuntamiento de Andoain. En caso de falta de medios o capacidad para presentar la solicitud electrónicamente **se ha preparado un servicio de asistencia para la tramitación telemática en el KZgunea** situado en la calle Ondarreta 8 junto al Juzgado de Paz.



Andoaingo Udala



La solicitud de la ayuda debe descargarse de la Sede electrónica, en la página de inicio de www.andoain.eus (apartado Subvenciones/Ayudas a la promoción económica y el empleo) y cumplimentarla para realizar la tramitación. Una vez cumplimentado todos los documentos, desde el KZgunea se asistirá a todas aquellas personas que requieran ayuda, solicitando cita previa llamando al teléfono 943 023 610.

Solicitudes físicas

Todas las personas que quieran tramitar la solicitud de forma presencial podrán dirigirse al **servicio de atención al ciudadano ATARIA** situado en el Ayuntamiento, solicitando cita previa vía telefónica (943 300 830) y cumpliendo las medidas de prevención establecidas debido a la situación de crisis sanitaria ocasionada por la Covid-19.

Detalles de las nuevas ayudas

La orden de ayudas publicada, se dirige a sectores específicos: **las personas autónomas, el comercio y la hostelería local**, y como novedad una línea específica para el sector de **las industrias culturales y creativas**. Quedan fuera de estas ayudas las actividades esenciales que han prestado servicio de forma ininterrumpida desde que se declaró la alerta sanitaria por la COVID19.

Se trata de ayudas que ascenderán en el caso de las personas autónomas y las industrias creativas/culturales a 500€, hasta los 750€ para el comercio y 2500€ para la hostelería.

Para cualquier duda sobre los documentos a presentar o sobre la tramitación se podrá llamar al departamento de Promoción económica, Empleo y Juventud en Urigain, al teléfono 943 304 221.

BASES: https://labur.eus/boletina_COVID

Andoain, 5 de enero de 2021